

Prentsa oharra

Nota de prensa

Plaka hauek jarriko dira:

1. **Maria Dolores Goia:** Donostiako andereñoa eta ikastolen sustatzaileetako bat. Erbestean egon zen gerra zibilaren ondoren, eta 1940an, itzuli zenean, euskarazko eskolak ematen hasi zen, modu klandestinoan, batzuetan bere etxean bertan. Plaka Intxaurren auzoan bere izena duen plazan jarriko da.
2. **Alice Gordon Gulick:** Bostonen jaioa, Donostian porturatu zen. Hemen, Askatasunaren hiribidean, emakumeentzako eskola-barnetegi bat sortu zuen, 1881ean. Ikastetxea nabarmendu zen, bere ikasleek zuten prestakuntzagatik, eta Miarrizera eraman zuten, lehenik, eta Madrilera, gero. Plaka Intxaurren auzoan bere izena duen plazan jarriko da.
3. **Batelariak:** XVII. mendearen hasieran dagoeneko hitz egiten zen Pasaiaiko portuko alde batetik bestera jendea beren ontzi eta txalupetan pasatzen zuten emakumez. XIX. mendean, berriz, gizonek egiten zuten lan hori. Gaur egun ere egiten da, motordun ontzien bidez. Plaka beren izena daraman Buenavistako plazan jarriko da.
4. **Carmen Burgos Colombine:** Almerian jaiotako idazlea, Espainiako lehen kazetari eta gerrako berriemaitzat hartua. Bere garaiko hainbat egunkaritan lan egin zuen, eta emakumeak politikan, gizartean eta kulturean duen zereginaren aldarrikatzaile nagusietako bat izan zela jotzen da. Plaka bere izena daraman Bidebietako kalean jarriko da.
5. **Joana Albret.** Nafarroa Behereko Erregina. Bere semea Henrike III.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa izan zen, Borboi etxeko Frantziako lehen erregea, hain zuzen. Erreginak, protestantismora aldatuta, Testamentu Berria euskarara itzultzea bultzatu zuen. Plaka bere izena daraman Intxaurrendoko kalean jarriko da.
6. **Ignazia Zabalo, Nornahi:** Euskal Herriko lehen emakume marrazkilari eta ilustratzaileetatik hartua, bere lanak Nornahi (*Nor-Nai*) izenarekin sinatzen zituen. Plaka bere ezizena daraman Bidebietako kalean jarriko da.

Plakak 10 mm-ko lodierako altzairuz egin dira. 80 cm-ko altuera dute eta 8.487 euroko kostua izan dute.